

Mertxe Arruti Abendibar

*Zarautz,
Gipuzkoa (1931)*

Aurkibidea

Biografia



Ipar kalean jaio zen (lehenago Calle Mirador deitua, eta Calle Calvo Sotelo Francoren garaian). Ama bizkaitarra zuen, Mallabikoa. 24 urterekin ezkondu zen zarautzar batekin eta 3 seme-alaba izan ditu. Irakasle izan zen, baina ezkondu eta lanbidea utzi egin zuen. Hala ere, urte luzez jarraitu zuen eskola partikularrak ematen.

Zintak

ZAR-017

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-01-19
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Zarauzko lexikoa

- **Erref:** ZAR-017/002
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

[Tximili-kuarteka] ibiltzen ziren. Txaparroa (bainujantzia). Zarauzko hitzak. Erdarazko hitzak erabiltzeko joera.

2. Zeledon Zarautzen

- **Erref:** ZAR-017/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Gasteiztarrek uste dute Zeledon euren pertsonaia dela, baina beraiek gaztetan "Zeleron" abesten omen zuten, aitona zaharren bat edo eskalaren bat ikusten zutenean.</p>

3. Bere buruaren aurkezpena: izena, jaioteguna, zaletasunak

- **Erref:** ZAR-017/004
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Irakasle izandakoa da. Zaletasunak: pintura, mendia, hondartza, sukaldaritza..
Maria Mercedes Feliciano Arruti. 1931n jaioa irailaren 24an, orain Ifar kalea denean. Zergatik deitzen dioten Feli.

4. Amaren jatorria

- **Erref:** ZAR-017/005
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra Bizkaian pasa zuen, ama Mallabikoa zelako. Hizkeran antzematen zaiola komentatzen dute. Ama Mallagarai zen. Aitona oso aberatsa zen.

5. Gerra garaia nahiko ondo pasa zuten

- **Erref:** ZAR-017/006
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Nola gogoratzen dituen gerrako egun haiek. Janari nahikoa zuten. Gerran baino okerrago pasatu zuen frankismo denboran. Osaba bat hil zieten. Aitak ez zuenez erretzen, amak tabako-orrien truke janaria lortzen zuen. Ez du oroitzapen txarrik.

6. Euskaraz hitz egitearren isuna

- **Erref:** ZAR-017/007
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Zaharragoek nola gogoratzen zuten gerra denbora. Bere gurasoei euskaraz hitz egitearren 60.000 pezetako isuna jarri zieten Donostian guardia zibilek. Don Leandro medikuak utzi zien dirua isuna ordaintzeko. Orduko dirua.

7. Eskolako kontuak: ikasketak nahiko aurrera eramane zituen

- **Erref:** ZAR-017/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Lehenbizi Miserikordian eta gero Herriko eskolan ibili zen; ondoren, Maria Inmakuladara pasa zen magisterio ikastera eta Donostian bukatu zuen karrera. Valladoliden eta Madrilén izan zen ondorengo prestakuntzetarako. Eskolan jende asko egon arren, gutxi egiten zuten karrera. Adinaren arabera aldatzen ziren eskola batetik bestera.

8. Arantzazura txangoa

- **Erref:** ZAR-017/010
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Eskoletan neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Urte bukaeran Arantzazura bidaia izaten zuten elkarrekin.

9. Neska eta mutilen arteko aldea ikasketetan

- **Erref:** ZAR-017/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Neska eta mutilek gai eta azterketa berdina izaten zituzten. Tratamendu aldetik, falangeak labore-lanak, musika, etab. egitera behartzen zituen neskak (magisterio barruan). Irakasleak ere ia denak emakumezkoak izaten ziren neskentzat eta mutilentzat gizonezkoak.

Transkripzioa

- Ze desberdintasun zeon neska izan, mutilla izan irakaskuntzai begira?
- Ez det uste nik bazeonik, zergatik geo azterketak eta itea Donostira juten giñan ba, e, eta han aula baten eoten giñan, ta tema berdiñak eta ematen zizkiguen azterketak iteko garaiyan, ulertzen?
- Titulaziorako berdin.
- Bai, daneako berdin. Eta juten giñan, ta bueno, ba, lista pasatzen zuenian, ba, neskan tartian mutillak, eta mutillan tartian neskak, eta temak eta dana berdin-berdiñak jartzen zizkiguen.
- Eta, bestela, eskoletan tratamentua, funtzionamentua desberdiña zan? Bakizu, eo?
- Hala izango [...]. Mutilletan ez zan berdiña izango. Guri, guri, gauza bat,

hori bai, falangiak obligatzen zigun "a hacer música y a hacer labores", eta...

- Zerbitzu soziala?
- E?
- Zerbitzu soziala deitzen zana?
- Bai, servicio socialan tankeakoa, baiño "era corte y confección", ta ez dakit ze, majisteriyon barruan. Ta hori mutillei ez zitzaioen erakusten, adibidez, entenditzen, ez dakit, beste zeoze eakutsiko ziyoen, ez dakit, ez dakit.
- Ordun majisteriyua izan zan, egoten zan emakumeentzako espezifikua ta gizonezkoentzako beste era batekua?
- Ez. Nik uste det programa berdiña izaten zala. Zeon hori, falangiak ematen zizkigun hori, haiei emango zizkiyoen "el plan política, eso es más bien en plan de" etxeko gauza bezela, bezela. Baiño nik uste det ezetz, programa berdiña izango zan, baiño haiei gizonezkuak ematen zizkiyoen, ta guri emakumiak. Profesoren bat eukitzen gendun gizonezko, e, eukitzen gendun, bai.
- Bestela emakumezkoak?
- Bai, bestela emakumezkoak o monjak.
- Eta hamen Zarautzan 'e bai?
- Bai, bai, bai, bai.
- Dana maistrak?
- Dana maistrak. Euki gendun latinezkua, ta ez dakit beste gizonezkoik euki gendun? "No, Fray Vicente", latíña ematen ziguna, bestela dana emakumia, dana emakumia.

10. Arantzazura txangoa. Neska-mutilen arteko kontuak

- **Erref:** ZAR-017/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:21:11. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Urte bukaeran Arantzazura egiten zuten bidaian bakarrik elkartzen ziren neska eta mutilak. Treneko bagoietan ere banatuta joaten ziren. Neska-mutilen kontuak. Elkarri begiratzeko ere beldurrez egoten ziren.

Transkripzioa

- Ta, elkartu ta bakarrik eskursiyota.

- Bai, eskursiyo horta, zan bereziya! Frailetakuak eta herriko eskoletakuak behin Arantzazura juten giñan, gaur bezela ta bihar arte..., jo! Gustoa! Baita bagoian 'e, kotxeko, esto, treneko bagoian 'e, aparte. Batzuek bagoi baten, mutillak bagoi baten, ta neskak beste bagoian. Aitzen al dezu?

- Baiño, geo Oñatitik Arantzazura autobusean, edo?

- Alkarren onduan danok. Orduan ya danak alkarrekin.

- Ta, ze sentsazio sentitzen zan, ze bibrazio?

- Ba, orduantxe gustoa, askatasuna, o! Ez dakit nik, ya hitz eiteko gogo batekin, bestela beldurrez eoten giñan. "Nei hua gustatzen zaiten, ta hiri 're bai", baiño guk hamendik jun beharra haiek handik jun behar zuelako ta. Bai, bai, gu holakuak ibili gentuzen guk, e! Kale Nagusiyan ibiltzen giñan, kalea jun ta etorri ta jun, hortxe pasiatuaz, mutillak alde batetik, eta

neskak bestetikan. Eta nik "ikusi al den?", ta "bai", ta kaso iñ iñ al din ta ez al diñ, ta horrela ibili behar izaten gendun. Bueno, bueno... Geo nei esaten dienak "las que hemos pasao"... zuek? Nik esango nizuke.

11. Debeku askoko garaia zen

- **Erref:** ZAR-017/014
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Debeku asko ziren orduan: prakarik ezin jantzi, mutilekin dantzarik ezin egin, 9tako etxean.. Txaparroak (bainu-jantziak) mojei erakutsi behar izaten zizkieten nolakoak ziren ikusteko.

Transkripzioa

- Guk bizitu giñan "el periodo de la negación", dana no, dana ez. Galtzaik ezin zan jantzi, bestela, este, bikaio jaunak deitzen zizun. Dantza mutillakin ezin zan in, ezta... bestela Hijas de Mariastikan botatzen zizuen. E... kalia erten... bai plazan ta... ezta pentsatu 're, beatzitako etxea, bestela pekatua zan. Txaparruak, txaparruak, "el traje de baño", nik monjai eakutsi, eaman in behar izaten giñon ikusteko nolakua zan, aitu? Eta gona bat eta ez baldin bazakan, "estábamos escomulgadas", ta orduan berriya in behar zan, o berriya o ez zan hondartza juten.

12. Beste irakasleekin ika-mikak ikasleei askatasun gehiago ematearren

- **Erref:** ZAR-017/015
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:23:07. **Bukatu:** 00:26:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Oposizioak egin ostean Zarautzen egon zen irakasle. San Inaziori egindako bederatziurrenean euskaraz abesteko eskatu zien bere ikasleei. Zuzendariak izugarritzko bronka bota zion. Neskei manga motxean ibiltzen ere uzten zien, eta beste irakasleek ez zuten ongi ikusten.</p>

13. Bainujantzia eta eskolako jantzia nolakoak ziren

- **Erref:** ZAR-017/016
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Nolakoak ziren orduko bainujantziak: tirante eta gona motxarekin.

Eskolako uniformeak, berdina izaten zuten uda eta negu. Bostak ingururako elizara joaten ziren bedetakoak. Dantzara ez zuten uniformearekin joan nahi izaten, mutilek ez zirelako begiratzen.</p>

Transkripzioa

- "¿Y el traje de baño?, ¿qué traje de baño tenemos que llevar?", "el que te ha comprado tu madre"... egiya! Ni hasiko banitzan nolako txaparrua eramane behar zuen ta, beso motxa ta, beso luzia, ta, zea, gonakin ta, ...
"Zure amak ze erosi dizu? Huaxe jantzi, ta kito!". Jo! "¡Vaya clan! ¡Vaya reunión de las demás profesoras pa echarme a mí el rapapolvo!". Nei bat 'e ajolik ez, ordia!

- Ta nolakoa zan txaparro hura, gootzen al dezu?

- Tirantiakin eta gona txiki motx batekin, e, dexente. Baiño eske hoiek nahi zuen gona belauneaiño! Ezta... horrela nola eamango zenun, ba, ume gajua! Bere amak erosi baldin baziyon beste txaparro hua... Oaingo bikiniak erakutsiko nizkiyoke nik haiei ze esaten duen, oaingo bikini ez, oaingo monokini, o zer dia uanguak... Ai ama! Earra da hau!

- Nolakua zan uniformeak eskolakua, gootzen al dezu?

- Bai.

- Neguan izango zan era batekua, ta udakua beste batea ez?

- Ez, guk beti bat.

- A, bai? Ta nolakua zan?

- Beltza! Plisatua, gerriko txuriya eta hemen txalina bat, o sea, lazo bat, este, urdiña, pinta txuriyekin. Ta geo, kapa bat, kapa bat, dotoria zan.

Geora aspertu in giñan txalina hori, lazo horrekin, ta eskatu gendun korbata. Ta orduan aldatu ziguen, ta orduan in ziguen pitxi deitzen giñona, o sea, blusa argi bat eta geo txaleko mouko bat gona plisatuakin, eta korbatakin. Hori polito zan, beti horrekin ibili behar. Eta jun behar izaten gendun "a la bendición" deitzen ziyoena, zea, bostetako eliza, bostak aldea, o lau t 'erdiatik bosteta "a la bendición". Ta uniformiakin jun behar, galtzerdi bel-bel-beltzakin. Ta geo handikan erten ta dantza jun nahi plaza. Ta uniformiakin juten bagiñan mutillak ez zian urreatzen... eta guri itxillua, zea, saltaka jun behar etxea aldatzea.

14. Erlijioaren garrantzia

- **Erref:** ZAR-017/017
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Zinera joan ahal izateko "tranpak" egiten zituzten. Bezperetara joan

beharra izaten zutenez, arrosarioa nork errezatzen zuten begiratzten zuten lehenbizi, hurrengo egunean irakasleak galdetzen zuenerako.</p>

Transkripzioa

- Ta zenbat tranpa iten genduzen. Zinea 're jun nahi izaten gendun, eta noski, zea jun behar ba, aurrena bezpereta, ta bezpereta juten bagiñan, zinea juteko denboik ez. Ta orduan ze iten gendun? Danak iten zuena! Tranpa! Beiratu, "zenek erreztatu du errosaiua?", ta, "a, Don Jorgek". "A, bueno, ondo dao". "Eta ze erropaje eaman due?", eta, "gaur berdía", zea, kasullak eta zer zian, ba? Gorriya, o horiya, berdía, beno. Hurrengo egunian, gu zinea. Zinetik ertetzen giñanian, "a ver, las que ayer estuvieron en la bendición, o las que estuvieros en las vísperas", eta, "¿quién rezó el rosario?", ta, "Don Jorge. Iba con casuilla verde". Ta orduko, zea, batez, tranpa inda. Hola bizi behar, hola bizi behar! Ta oain, oain zea, ez dakaela? Oain gehiegiko askatasuna dao, e, hori 're ez det nahi, guriak 'e bere graziya bazun.

15. Oporretako entretenimenduak

- **Erref:** ZAR-017/018
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:29:04. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Eskolako egutegia. Oporrak uztailaren hamabostetik irailaren 15era izaten zituzten. Udan hondartzara, dantzara eta zinera joaten zen. Pelikulak ze kolore zuen begiratu behar izaten zen. Kolore bakoitzaren esanahia.

Transkripzioa

- Ze egutegi, ze kalendaio eukitzen zenuten eskolan, gogoatzen al dezu? Oporrak eta noiz izaten zan, ta...
- Ez naiz gooratzen, ba, oporrak noiz eukitzen genduzen... ba, "julio, del quince de julio al quince de setiembre".
- Ta ze iten zenuten oporretan?
- Ni, Zarautzen nola bizi nitzan, hondartzan. Ni ondo bizi nitzan. Arraldian jaiotakua naiz ni. Zuk ba al dakizu arraldia zein dan? Ba, hortxe. Hor inguruan jaiua nitzan, ta guk egun guztiyan arraldian, gu itsasuan. Ta, bestela, plaza dantza noski, hori bai, e! Ta zinea 're bai. Baiño zea beiratu behar izaten gendun, ze koloretako pelikula zan, o roxa, o urdiña, o horiya. Bestela ezin zan jun.
- Ze esan nahi zun, kolore bakoitzak ze esan nahi zun?
- Ba, adibidez, txuriya zan "pa todos los públicos". Geo zetorren, ez dakit ba, urdiñ argiya o roxa, hoi izango zan, ba, hamalau urte arte. Geo bestia zan hemezortzi urte arte, ta geo, "prohibido a todos los públicos". Ta hori izaten zan politena, verde o rojo, hoiek izaten zian txarrenak.

16. Dotrina don Juan Azpiazurekin

- **Erref:** ZAR-017/019

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Hileko lehen ostiralean jauna hartu eta aitortu egiten zuten. Zuten paga apurra ere eman egin behar izaten zuten. Astero-astero don Juan Azpiazu etortzen zen dotrina erakustera.</p>

Transkripzioa

- Lehen ostiraletan izaten al zenuten obligaziyoik eta... Nola izaten zan hori?

- In behar izaten gendun, esto, "los primeros viernes de mes". In behar izaten zan, esto, lehenbiziko ostialetan, este, aitortu eta jaun hartu behar zan, eta geo, pues, paga baldin bagendun, paga exkaxa izaten zan, ba, halan ta guztiz 'e, "los cinco céntimos para los chinitos o para los japoneses... y ahora les diría yo que vayan a dar los cinco céntimos a los japoneses", aber ze esaten duen... Beitu nola bizi dian uain! Bai, egiya da, e! Ta eamaten ez bazendun, mekatxis... Ta geo, astero-astero, astero-astero, larunbatetan etortzen zan Don Juan Azpiazu dotriña eakustea, dotriña eunero eman behar zan, e!! Estudiatu behar zan, baiño geo, aparte, harek esplikatzea. Baiño oso atsegiña zan, zergatik oso gizon atsegiña zan hua esplikatzen, ejenpluakin ta, oso... ez, harekin gustoa eoten giñan.

17. Neska-mutilen arteko kontuak; kuadrillak

- **Erref:** ZAR-017/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Mutiletan. Asko hitz egiten zuten mutilekin eta dantzan egin ere bai, nahiz apaizek utzi ez. 12-13 urte ingururekin hasi ziren dantzan. Bazituzten euren kuadrillak eta jaietan elkartzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Ze edadekin eta ze, nola zan garai hartako mutilletan itea ta?

- Bueno, mutillekin hitz ein-eta askotan iten genun. Talde bakoitzak, neskanak, bai neskanak ta bai mutillanak, bagenduzen gure [...] eta hitz ein ta, dantza ´e bai nik e, frailliak, o zea, apaizak ez zigun lagako, baiño ez giñun jaramon askoik iten, ta dantzan da iten genduzen da.

- Ze urtekin hasi ziñaten dantzan?

- Hamahiru bat edo hamabikin-edo. Bai, bai, bai, eta geo zea, plaza, esto, ibiltzen giñan Kale Nagusiyan ba jun ta etorri ta jun ta etorri, ba noiz o noiz

mutillak hurreatzen zian ta gurekin berriketan ta gurekin pasiatzen ta bai, bai, ibiltze zian, ibiltzen giñan. Guk gure kuadrillatxuak eta bagenduzen, ta euskal jaitan ta alkartzen giñan ta orduan dantzan ta iten genduzen ta.

- Agarrauk´e bai?

- Bai, bai, bai, bai, bai. Pausuak´e bagenduzen, "que hay que poner asi", bai, bai. Bata bestiai pasatzen gendun abixua. Zeiñekin poliki ibilli behar zan eta zeinek gehiegi estutzen zun ta hoiek danak.

- Ta dantzan eta nola ikasi zenuten edo?

- Ba plazan, hortxe, bata bestiak erakutsiyaz. Zergatik beti eoten zan batenbat bestiak baiño gehixio zekina; ba harek bestiei pixkat erakutsiyaz ta hola. Orduan dana agarraua zan ee, bai, trikitixa´re iten zan; baina ez oaingo zea dantza moderno hauek, ez. Eta bueno, nik uste det, zea, soiñua bea, konpasa jarraituaz, errex ikasten gendun ee, hortako jarriyak. Besterik ez zeon eta.

18. Zarauzko Euskal Jaia betidanik ezagutzen du

- **Erref:** ZAR-017/022
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Francok ez zuen Euskal Jaia kendu. Betidanik ezagutu du irailaren 9ko Euskal Jaia. Denak jantzita joaten ziren, baina ikurrina debekatuta zegoen. Lehenbizikoz Iparraldean ikusi zuen ikurrina.</p>

Transkripzioa

- Ta euskal dantza 're iten zenuten, ordun?

- Ez, zea, fandangua ta, zea, plazan, zea tanboliñakin jo, txistuakin, ta holaxe, besteik ezer ez.

- Ta libre zeon hori?

- Bai, bai, bai, hori bai! Hori bai, beitu. Franco ez zan ausartu Zarauzko Euskal Jaiak kentzen 'e. Danak kendu zitun eta Zarautzen beti-beti-beti-beti-beti Ama Birjiña Arantzazuko egunian Euskal Jaia in zan, in zan, Franco garaian ta Franco pasa ta Francon aurretik.

- Beti ezagutu dezu?

- Bai. Hua ez zan ausartu hoiek debekatzen. Ta egun hartan danok joten giñan Euskal Jantzi... a, ikurriñik ez, e! Ikurriña nik, Frantzira joten giñan ezautzea, nolakua zan ikurriña. Ez, lehenbiziko aldiz Frantzin ikusi nun ta near in nun. Ta zergatik near nik ez nun ezautzen, ta? Emoziyua! Ta nundik dator emoziyo hori? Barru-barrutikan, zergatik nik ez nun bestela behiñ 'e ezer 'e aitu ta. Hua ikusi nunian nearrez hasi. Ze iruitzen?

- Ze urte zan hori?

- Bueno, ya hamalau, hamabost o, e, ya koxkortuta, e! Aurretik ezta ezautu 're, ezta, ezta, ezta... Ezta, bueno, bueno... "No teneis que hablar el vasco porque sino no tendréis ninguna expresión luego el día del examen".

19. Euskararen inguruko debekuak

- **Erref:** ZAR-017/023
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:37:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan euskaraz hitz egitea debekatzen zieten, bestela ez zutela erdaraz ikasiko esanez. Neska askok harrokeriagatik ez zuen euskaraz hitz egiten. Etxean aita eta ama beti euskaraz egiten zuten elkarrekin, baina ama beraiei erdaraz.

Transkripzioa

- Ze urte zan hori?

- Bueno, ya hamalau, hamabost o, e, ya koxkortuta, e! Aurretik ezta ezautu 're, ezta, ezta, ezta... Ezta, bueno, bueno... "No teneis que hablar el vasco porque sino no tendréis ninguna expresión luego el día del examen". Ta ni lotsagabia nola nitzan, hala esaten zuen, "entonces, que, que... ya veo yo aquí chicas que no tienen ni pupa, ni idea de euskera, y resulta que suspenden todas"... "¡ya está la descarada!"...bai! "Entonces, ¿pa qué estudiamos francés y pa qué estudiamos latín?" Egiya! Baiño, ze nahi dezu? "Eramos las descaradas" hori esaten gendunak. Bestela, danak umill-umill kasu itea. Etxea jun ta, ez, ez zuela, este, euskeraz in behar, zeba?, ta monjak ez zuelako lagatzen. Esan gure aita hori! Esan gure aitai! Harek hitz erdik ez zigun iten, earki zakin, e! Hitz erdik ez zuen iten. Amakin erderaz, aizu! Ta ama baserritarra. Ta amakin erderaz. Nola dian gauzak! Ta hori gehienak, e! Ta Zarautzen orduan iten zan askoz gehio mutillen artian euskeraz, ta neskan artian harrokeriz ez gendun iten euskeraz. Nik etxian nahi ta nahi ez in behar nulako. A! Uain 'e bai, e! Gure itxian hitz erdik 'e, ez seme-alabak eta ez billobak, ate hartatik sartzen dianian ezta hitz erdik erderaz in behar.

- Ta, ordun aita amakin erderaz iten zun, e?

- Ez, beren artian euskeraz, beti beren artian euskeraz. Baiño ama gurekin erderaz.

- A bai, e? Ta aita euskeraz dana.

- Aita beti dana euskeraz, harek dana euskeraz.

- Ta nundik datorrela uste dezu hori, emakumeen joera hori...

- Emakumiak txoruak, harruagatik. Debekatu iten ziguen, hori egiya da, baiño debekatzen ez ziyoenai 're, jo, eske erderaz ite hori... hori euskeraz ite hori, "eso era de kaxeras, eso era ridículo", ulertzen al diazu? Ta, mutillen artian, uain baiño, uain baiño gehio iten zan euskeraz. Uain adibidez Zarautzen behintzat neskak gehio iten due euskeraz mutillak baiño. Neskak asko iten dezue. Zuk eiten al dezu?

- Bai, bai, bai, bai.

20. 12-13 urterekin hasten ziren dantzan

- **Erref:** ZAR-017/024
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:37:38. **Bukatu:** 00:38:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>12-13 urterekin hasten ziren plazan dantzan. Erlojua atzeratzen zuten, bederatzioetarako etxean egon behar zuten bestela eta.</p>

Transkripzioa

- Ordun mutilletan, hamabi hamahiru urtekin goiz, ez, garai hartako?
- Bai, dantzan plazan ta, bai. Etxetik erten baiño lehen gaiñea, ordulaia hartu, ta ordu laurden bat o ordu erdi bat atzeatu, bestela betzitako itxea etorri behar zan, ta, zea onenian ta, zea, gure pasiatxua Getai birian in gabe nola jungo giñan, ba? Ta geo ama kontuatzen ez bazan, bale, baiño kontuatu baldin bazan, ba, bronka. [...], gaztetako kontuak. Ene! Kontatuko gentuzke gauza gehio, baiño horrela, hotzian, gutxi, ez zea gogoratzen.

21. Zertan gastatzen zuten paga

- **Erref:** ZAR-017/025
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:38:19. **Bukatu:** 00:39:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Paga: duroa edo zazpi pezeta. Zinea: 3 pezeta Gozokiren bat erosiz gero, segituan gastatzen zen paga.</p>

Transkripzioa

- Paga ta zertan gastatzen zenuten?
- Ez, ba, paga zenbat zeon, ordia? Zenbat paga ordia? Durua o, zazpi pezta o... Hortikan ez giñan iyotzen ta! Ba, juten ziñan zinea, hiru pezta, geo o txupatxus o karamelo o txikle o zeoze holakon bat erosten zendun, ta ze gelditzen zan? Ez zan gelditzen pagaik. Orduan ez zan diruik gastatzen. Ez zan ibiltzen diruik, eta ez zan diruik gastatzen. Ez zeon pagaik. Paga, ze paga? Ta gaiñea erditan igual esaten zizuen nola lotsagabia izan ziñan, pagaik gabe! Kalian gora, kalia behera, hola ibiltzen giñan, berriketan eta.

22. Apainketa-lanak: janzkera, orrazkera

- **Erref:** ZAR-017/026
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:39:01. **Bukatu:** 00:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Neguan ta udan antzeko arropa erabiltzen zuten, aukerarik ez zegoelako. 18 urtera arte ez zen hasi makilatzen. Ze orrazkera erabiltzen zen: melena eta kopetak.

23. Garaiazen arabera jolas ezberdinak egiten zituzten.

- **Erref:** ZAR-017/028
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:43:45. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

14 urterekin hasi zen kolegioan. Jolasak: garaiazen arabera: xakaponetan, kaniketan, txinguan, tximili-kuarteka...

Transkripzioa

- Kolejiyoa zenbat urtekin jun ziñan?
- Hamalauekin.
- Hamalauekin.
- Bai, urruti iten zan, e!
- Umetan, kolejiyoa jun aurretikan ez deu komentau jolasen... Ze neska jolas zeon ordun, ba, ez dakit, hamar hamabi urtekin?
- Ba, adibidez, ibiltzen giñan garayan, e, garayan garaikua. Garai bat izaten zan igual xakaponetan ibiltzekua. Kaniketan ibiltzekua, hori gehio mutillak, guk baiño gehio, mutillak gehio. Txinguak, txingua deitzen giñon, in horrela marra batzuek plazan o lurrian, eta harri koskor batekin. O txinguan, o bestela tximilikuarteka, e, geure taldia, geure lagunak: mutillak, neskak... Miramarkuak, adibidez, eta alkatia nola izan zan, Juaristi ta, hoiek gure kuadrillakuak zian bai, ba, inguruan bizi giñanak, eta horta. Ta sokasaltua. Negu-negua sokasaltua izaten zan. Ta xakaponak eta udaberriyan izaten zian, ulertzen al dezu? O sea, garaian garaiko jolasak zian. Ta geo hondartza, ze esanik ez. Behin garaya, behin udabarriya aurreatu ezkeo, hondartzan, gu beti hondartzan. Kixkilletan ta hor ibiltzen giñan beti, danak busti-busti inda etxea!

24. Neska eta mutilen arteko aldea kiroletan

- **Erref:** ZAR-017/030
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Mutilak kukañan ibiltzen ziren eta neskak begira. Igerira ere neskak gutxiago joaten ziren moilara.

Transkripzioa

- Ta orduan 'e hondartzan ta, mutillak kukañan-ta ibiltzen zian eta abar, ta

neskak ba al zuten hola...

- Begira, ez, gu beira, gu beira kukañetan... Ta hoixe gustoa, gaiñea, beira eoten giñan. Beti eukitzen gendun faboriton bat, eta... zeñek harrapatzen dun ta... Gu haiei beira, kukaña dila ta. Geo, igerira neskak gutxi juten zian zeara, moilla, mutillak gehio. Neskak maritxiko hara jun ezkeo, maritxiko. Ta ez zeon oso ondo ikusiya. Gu hondartzan, baiñatzeko ta hori, enteitzen?

- Baiña kixkilleta bai.

- Bai, han bai, kixkillak harrapatzen, ta, zapaburuak eta. Nik ez dakit ze... murliyuak eta lapak eta muskuluak eta [...] harrapatzen. Bueno, izugarrizko arrantza. Oaingo aldian asko zeon orduan, e! Uain ez dao ezer 'e, orduan asko zeon bai.

25. Aristokraten dotorezia hondartzan

- **Erref:** ZAR-017/031
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:46:13. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Aristokratak "bañerua"rekin joaten ziren. Albornoza eramaten zuten. Kasetak izaten zituzten eta haiei begira egoten ziren.

Transkripzioa

- Gogoratzen naiz aristokraziyak, haiek juten zian baiñeruakin, ta, itsas-ertzian eoten zan gurutze bat jarrita, egurrezkua, honela. Haraiño albornoza haundiyakin. Han albornoza kendu, hantxe zintzilika jarri, ta barroa. Hori aberatsak baiñeruakin. ¡Vaya lote que se daban los bañeros! ¡Ay, que viene la ola!, heldu, bai, heldu. Ta gu beira. Gu dana kontuatzen giñan, gu tonto, tontotik... txikiyak eta gaztiak eta herrikuak, baiño kontuatzen giñan. [...] eta, "Vixente baiñerua halakuakin zion", ta, "jaaa, ba, lote earra emango diñen orduan gaur!". Eta geo ya eoten zian itsasuaiño jeisten zituen kaseta mouko batzuek. Eta kaseta hoiek izaten zuen sarrera alde batetik eta bestetik. Ta han aldatu iten zian. Txaparruak kendu ta jantzi, ta bustiya zeonen aldatu, ta geo albornoza jarri, ta. Eta eukitzen zituen hola reja batzuek, eta, ja, alde honetatikan sartzen baldin bazan "la duquesa o la marquesa o la condesa o", zergatik kondesa ta markesai buruz hitz eiten hasten bagea, esango dizuet, "mucho Hohenlohe", baiño hamaika kalabaza eman nizkiyon Zarauzko plazan, e! Bai, bai, bai. Eta bestaldetik, baiñeron bat o mutillen bat o pasako zan beiratzea aber ze ikusten zun, ta gu dana kontuatzen giñan. Ta gu Munoatik o, gu beira. "Ikusi al den zein sartu dan?", "bai", "ése, ése es un verde, verde, ése es verde. A ese no hay que hacerle caso, a ése hay que darle calabazas". Bazakan bere..., bere zea bazakan...
- Bere saltsa.

26. Neska kanpotarrei "bugatis" deitzen zieten

- **Erref:** ZAR-017/032

- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Oporrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

<p>Neska kanpotarrei "bugatis" deitzen zieten. Zarauzko mutilak kanpotarrei egiten zieten kasu gehiago.</p>

Transkripzioa

- Ta bitartean mutillak kirolean, kukañan, ta...
- Bai, eta neska, neska launtzen. Baiño herrikuai lagundu biharrian, neskame kanpotarrai. Fama handiya zeon, "que las bugatis", bugatis deitzen zitzaion... dejaban...
- Nola, nola?
- Bugatis. Bugatis deitzen zitzaion neskamiai, esto, kanpotarrai. Eta "que aquellas dejaban meter mano", fama hori zakaen, ta, haiei laguntzea haiek. Gui kasoik in gabe, udaan haiekin. Gu... orduan herriko neskak gaixki ikusi... ezta kasoik 'e! Ze iruitzen?
- Geo zuek kalabaza eman.
- Bai, guk kalabaza.

27. Aristokraziakoekin nolako tratua zuten

- **Erref:** ZAR-017/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Alfonso de Hohenlohe. Aristokratak ere gaizki ibiltzen ziren diruarekin eta inoiz lagundu ere egiten zieten zinera sartzen. Txartela apurtu gabe pasatu eta leihotik bera bidaltzen zioten gero behean zegoenari.

28. Ez zegoen neskentzako kirolik

- **Erref:** ZAR-017/034
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:50:05. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Ez zegoen neskontzako kirolrik eta, gainera, gaizki ikusita zegoen. Igerian bakarrik ikasten zuten, euren kasa edo etxekoren batek lagunduta.

29. Ospakizunak. Aste Santuko mutilen entretenimendua

- **Erref:** ZAR-017/035
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:54:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Pelaioak, Euskal Jaia, Gabonak, Jesusen Bihotza, San Antonio.. Azken hau oso polita izaten zen, prozesio handia egiten zuten. Erramu egunean mutilek trajea estreinatzen zuten. Aste Santuan dena debekatuta zegoen eta luze joaten zitzaien. Aste Santuko baraualdia ez zaio gustatzen.

Transkripzioa

- Urtean zehar jaiak eta, ze jaiak ospatzen izan zan orduan? Hola...
- San Pelaioak, Euskal Jaia, hori ze esanik ez, geo, ba, Gabonak eta Aste Santuak eta... Jesusen Bihotza, oooo, izugarrizko prezesiyuak. San Antonio, oso prozeziyo dotoriak. Corpus Christi, hori 're bai. Gaiñea, San Antoniona oso dotoria izaten zan. Mutillak jantzi batzuekin, terziopelozko batzuekin, hola, luma batzuekin ta, jazten zituen, jartzen zituen geo. Oain Alberdiñeko etxia bota zan, han altaria jarrita. Gu larrosak botatzen, gu larrosak botatzen, bai. Jo, dana elizko, elizako gauzak, e! Prozeziyuak eta danak, e! Jesusen Bihotzanak 'e oso dotoriak izaten zian, izugarrizko estandartiak. Aingeruz jantzi ta, ez, honela eramaten dana bakarrikan ez, hola, luzia, banderan eramaten dianak eta. Ta geo danak hola kaja bat, danak larrosak botiaz ta. Oso apaiña. Festa haundiya izaten zan, prozeziyoa jutia, ta hua ikustia ta. Gaiñea, erramu egunetan, mutill iya danak o gizonezko danak trajia estreinatzan zuen. Ta gu beira "quién se ha puesto briches y quién no se ha puesto briches". Britxes, bakizu, orduan zeaiño zian zian orduan, belaun azpiraiño, "estilo inglés", ta dotoriak eramaten zuen britxis. Guk, ez dakit nola esaten dan baiña guk britxis esaten gendun. Izena inglesa eukiko zun, ta auskalo nola esaten dan, baiño guk britxis. Eta... britxis jazten zuna apaiña zan, ta, "harek halakuak britxis erosi dizkin, jantzi dizkin".
- Ta Corpusean iten al zan jairikan hemen?
- Bai, jo, jai haundiya gaiñea. Penik haundiyena eukitzen gendun Aste Santuan, ai, ze txarra zan Aste Santua! Ze luzia zan! Ez zan jan behar, ez zan dantzik in behar, zineik ez zeon, dana gaixki ikusiya zeon. Zuk ez dakizu ze aste luzia izaten zan huaxe! Mutillak jutun zian lapeta, hori bai, moda zan, e! Ostiral Santu egunian lapeta jun, ta haiek lapa-jana. Ta emakumiak batez. Ze iruitzen? Aste Santua zan oso txarra. Zinia 're ez ziguen lagatzen jutun, ez zala jun behar. Ta geo, baraua eta haragi uztia, ta zer ez ziguen... jo... Zu ez ziñan, ez, ez, ez zea, ba, apaiz tartekua izango, ezta?
- Ez, ez.
- Ez, hobe, hobe. Nik uaindik oaiño batekin hola erritan in nun, zer zan hori, barau ite hori, aberatsa zanak bulak o erosi, eta harek astian, o zea, ostialetan haragiya ta jatia bazakan, bakarrik Ostiral Santua, ez, ostiraletan

haragiya ez, baiña bestela gu asteazkenetan 'e bai, haragiya janai laga in behar geniyon. Haiek libre, ta pobriak ordaindu bihar ezin zunak, harek in behar zitun barauak eta haragi uztia eta danak in behar zitun, e! Eta haragi uzte hori oso parregarriya zan. Zergatik aberatsa zanak langostak eta angulak jaten zituen, bai, ba! Hua bai, ta bestiak? Gizajo, pobre gizajuak, talua besteikan ezin zunak, hua zea, urdai pixkat euki ta hua 're ezin zula jan. Hori erlijyua al da? Hori? Bueno, ixo, ixo...

30. Aste Santuan mutilek lapa-jana egiten zuten

- **Erref:** ZAR-017/036
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:54:39. **Bukatu:** 00:56:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

<p>Mutilek Aste Santuan lapa-jana egiten zuten elkartean. Baziren elkarte asko: Gure Kabia, Eizmendi... Txaletetan ere egiten zituzten lapa-janak. Aristokrata eta herritarren arteko harremana.</p>

Transkripzioa

- Lapa-jana esan dezu, mutillak lapa-jana iten zutela... Nun eiten zuten lapa-jana?
- La pajara?
- Lapa-jana. Lapak...
- A, lapak, bai. Hoi soziedadetan.
- Soziedadeik ba al zeon?
- Uuu, Zarautzen? Aber, Gure Kabiya eukiko ditu ehun ta gehio urte. Gure Kabiya seuru eongo zala, orduan. Ta besten bat 'e bazan. "Codorniz", bestia, Galeperra, hoi 're bai. Ta geo, urte asko jarri zuela bestia, Arkaitz-Mendi. Bazian hoiek, famosuak zian. Eta bestela, eske, orduan jendiak.... a, hor zioke beste gauza bat... a, orduan guatekiak 'e presente, jartzen, iten zian, e, eon pixkat. Eta gaiñea txaletetan. Bai, ba. Txaletak asko zian orduan, ta aristokrazi asko etortzen zan. Eta famili askok zauzkaen, gorde, giltzak eta [...] zakaen, ta noiz o noiz leihuak ireki ta, etorri behar zuenian apaindu, ta. Etxe hoietan iten zituen geo lapa-janak eta. Han sukaldiak eta dana zauden ba, saloiak eta dana.
- Ordun nahastu iten zian hemengok eta horkok? Aristokraziako jendea hemengoakin ta?
- Ez, lapa-janak eta iten dianian, aristokrazikoik ez zeon hemen! Orduan ez zian oraindik etorri. Haiek itxiak zazkaen, baiño aristokraziko jendia, bai, udaan herriko jendiakin asko tratatzen zuen, e!
- A, bai, e?
- Bai. Herriko jendiakin bai, kanpotar jendiakin gutxiyo. Guk, nik, nik, ez dakit zenbat markesekin ta zenbat dukekin ta, plazan dantza indakua, ta ni bezela, ni baiño gehio, asko.
- Sortu al da parejaikan, hola, matrimoniyoikan eta hola?
- Ez, ez, "luego aquellos eran la aristocracia", ez. Militarakin ta bai. Militarrek eon zianian bai.

31. Normal-normal tratatzen zuten aristokratekin

- **Erref:** ZAR-017/037
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:56:26. **Bukatu:** 00:58:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aristokratekin zuten harremana. Normal-normal tratatzen zituzten, baina ez ziren festetan elkarrekin ibiltzen.

32. Emakumerik ez zen sartzen tabernetan

- **Erref:** ZAR-017/038
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:58:12. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Ezkundu arte ez zen inoiz tabernan sartu. Ez zegoen ondo ikusita, gainera.</p>

Transkripzioa

-Taberna giruan-eta noiz hasi ziñaten emakume bezela sartzen tabernetan-eta?

-Ez, ez. Ni ezkundu arte ez.

-Ez, e?

-Ez. Ezkundu arte ez. Ni ezkundu ta geo bai. Ohitura haundiya gendun mezeta jun ta mezetatikan erten ta aperitibua hartzia.

-Zenbat urtekin hori?

-Ba ezkundu nitzan hogeita lauekin.

-Hogeita lau urte arte taberna zapaldu're ez.

-Bueno... ez... Zergaitikan zerbait -o limonadan bat o- hartu bagenun, hori izaten zan gehienetan, ba, lñurritzan, San Pelaiotan ta, horrela. Puestuak-eta nola jartzen zituen... Hola. Bestela taberneta... ez. Noiz o noiz, nik nobiyua... nobiyotan, noiz o noiz igual, limonadan bat hartzea o...

Korderitorea, gure etxe aurrian nakan ta. Hola igual bai e, baiño ez, bestela ez, ez, ez, ez. Ez zeon ondo ikusiya, gaiñea... Ez zeon ondo ikusiya, ez, ez. Gero behin ezkundu ezkeo, bai. Bai, orduan, gaiñea, talde haundiya giñan ta taldeka ibiltzen giñan ta... bai. Ta ni zarauztarrakin ezkundu nitzan. Oseake ya lehenotik ezautzen giñan. Zarauztarra, gurasuak'e zarauztarrak ta aitona ta amona-ta re zarauztarrak. Oseake...

33. Zamaiko-zulua non dagoen eta zer zen garai batean

- **Erref:** ZAR-017/039
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Zamaiko-zulua, orain Aitenetxe dagoen lekuari deitzen zitzaion. Tximili-kuarteka ibiltzen ziren bertan eta arrantzaleek batelak ere hortxe gordetzen zituzten. Eliza azpiari beti "zimitaiua" deitu izan diote, "cementerio"tik omen dator.</p>

34. Marrazteko zaletasuna izan du beti

- **Erref:** ZAR-017/040
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 01:01:45. **Bukatu:** 01:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Betidanik izan du marrazteko afizioa eta ikasten ere ibilia da.

35. Mendirako zaletasuna izan du gaztetatik. Txangoak

- **Erref:** ZAR-017/041
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:02:15. **Bukatu:** 01:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Gaztetan mendira joaten ziren 12-13 urterekin hasita. Txokolatea egiten zuten mendian. Montetxiora joan zireneko pasadizo bat kontatzen du. Ezkondu eta gero senarrarekin Club Deportbotik ere joaten ziren.

Transkripzioa

- Mendira ta juten ziñaten gaztetan ta?
- Bai, bai, bai, txokolatia itea, "a hacer chocolatadas".
- Ze urtetan hasita edo?
- Ez dakit, ba, hamahiru, hamalau, hamabi. Bai.
- Nora?
- Ba, kanposanto aldea, Salbide aldea, Salbiden han zelai earrak zaben lehen. Oain ez daude. Iñurritza aldea, oain ez dao zelairik, baiño lehen izugarrizko zelai earrak zauden. Eta, beste behin gooratzen naiz Montetxio aldea jun gea, ta in gendun sua piztu ta txokolatia in ta, txokolatia in ta geo, ba, hantxe giñan berriketan, ta, potia "leche condensadakin" bota gendun, eta "zer ziok, zer dabil hor?", ta, "auskalo, arratoien bat, eo". Ze ote dabillen ta, hantxe, zean, erantza batzuek, eta arantza tartian, ta zea... subia! "¡Anda carajo!", dana laga daon bezela, ta saltaka igesi gendun, subia. Ezerrek ez dit nei nazkik ematen, e, xaguak eta arratoiak eta, danak zoragarriyak dia, baiño subiak, ama... subia! Ta geo esan ziguen, este, esnia ta gauza gozua gustatzen zaiola, eta gu potia kondensadana txokolatia iteko, "leche condensada" eaman gendun ba, ta hua bota gendun han tarte, ta haren zeara ikusten danez, subia ta hola [...] beltz-beltz-beltz bat. Hua bildurra! Bai, txokolatia itea ta mendira bai, gustatzen zitzaigun.

36. Nolakoak izaten ziren Club Deportiboko mendi-irteerak

- **Erref:** ZAR-017/042
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:04:20. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Club Deportiboko irteerak nolakoak ziren. Herrian denak elkartu, bakoitza bere bazkariarekin eta kuadrillan joaten ziren. Zenbait mutilek abestu ere egiten zuen bidean. Bazkaria poltsetan eramaten zuten. Oinetakoak, arropa.</p>

Transkripzioa

- Eta, georo, ya hasiyo, ya senargaiakin ta, zeak, este, Club Deportivok

antolatzen zitun igual eskursiyuak Adarra, ta beste mendira ta, hola, bai, bai, jun izandu gea. Bazkaia hartu ta mendira, mendira ba eun pasa itea kuadrillan, e, beti kuadrillan.

- Hori, ya milla beatzirehun ta berrogeita hamar, hamabi inguru hortan?

- Beatzirehun ta... berrogeita hamar, berrogeita hamabi?

- Bai, bai, bai.

- Nola zan orduko mendi irteera bat Club Deportivoakin, kontatu zazu apur bat.

- Ni hemen inguruan. Ez, ez, ez, herritik ertetzen giñan. Plazan o alkartu, alkartu plaza, o bestela zitatu Azken Portu aldian, hori esaten zan herriyan bukaera bezela zan, ba. Eta geo handikan, ba, ba, tortillakin eo, e, juten ziñan ba mendira. Ba, gaur, e, haraiño, Pagoetaiño iyo behar ta, bakoitza bere [...] juten giñan kuadrillan, hixketan jun. Gero han exeri danok lasai, geue bokadilluak eta jan, eta geo, geo etxea. Ezer ez. Ez musikik eta ezer ez, e! Ez zeon ezer 'e!

- Kantuan eta iten zenuten bidean, ta holako gauzak?

- Nik ez dakat, aizu, zea, goorapenik, nik neuk. Bueno, beti euki det, iztarriya beitu ze gaixki dakaten, beti euki det, e, beti izan det "mi punto flaco". Uain okerro, gripe pasa detelako, baiño beti izan det eta. Ez det izan kantuako... Bai, bai, baten batzuek gogoratzen naiz "Eusko Gudariak gera" nola abesten zuen, bai, bai, bai. Mutillak, nola, mutillak. Ta hori ausartzen zian, ba, kantatzen e, eta nundik, zeñek eakutsi? Baten bat bazeon eakusten ziyoena. Baten bat bazeon.

- Motxilaik eta ez zan izango, ordun?

- Ez.

- Ordun, tortilla ta nola?

- Poltsatxo baten, poltsa alu baten. A, lehenon bakizu, "papel de estraza"ko poltsak eta izaten zian, ta holako baten. Motxilak? Zer zan 'e bagenkiun, ba? Ez genkiun zer zan motxila. Ta geo motxila relacionatzen gendun de todas todas militarraikin. Ez dakit petate o zer zan, baiño, ez, ez. Ta botak, ba, bortzegiyak eta, katiuskak gomazkuak, eta. Holako gauzak. Galtzaik eta? Bai... nik nere ama hil arte ez nun geo galtzaik jantzi, e! Gure ama [...], ta gure aitak beti esaten zun, "eske emakumiak galtzak jantzi in beharko lituzke, askoz 'e epelo ibiliko litzateke ta". Oso ezberdiñak zian biyak.

37. Etxetik kanpora egiten zuen lana eta etxean gutxi

- **Erref:** ZAR-017/043
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:06:40. **Bukatu:** 01:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Etxean lan gutxi egin du amari laguntzen. Donostiatik etorri zenean eskola partikularrak ematen zituen goizetik iluntzera arte. Jende askori laguntzen zion oposaketak prestatzen.

38. Fraideetako liburutegitik hartzen zituzten liburuak irakurtzeko

- **Erref:** ZAR-017/045

- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:09:30. **Bukatu:** 01:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Bazuen irakurtzeko zaletasuna, baina asti gutxi. Tebeoak eta errebistaren bat besterik ez zen egoten irakurtzeko. Fraideetan liburutegia zegoen. Igande goizetan joaten ziren liburuak hartzera. Erreal bat edo bi ordaintzen zuten eta nobela arrosak irakurtzen zituzten.

39. Lehenbizi Zarautzen izan zen irakasle eta ondoren Aginagan

- **Erref:** ZAR-017/046
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:11:23. **Bukatu:** 01:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>55.urtean hasi zen lehenengoz irakasle lanetan Zarautzen. Urtebete egin zuen Herriko eskolan. Gero Usurbilgo Aginagara joan zen. Irakasle gogorra zen baina jende askok estimatzen omen du. Nola izan irakasle ona azaltzen du.</p>
<p>

40. Irakasleak aurkitu behar izaten zuen klaseak emateko material egokia

- **Erref:** ZAR-017/047
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:13:34. **Bukatu:** 01:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Eskolak emateko ministeriotik zetorren programa bat izaten zuten. Bertan eman beharreko temak agertzen ziren eta irakasleak aurkitu behar zuen material egokia. Partikularretan, lehenbizi berak ikasi behar izaten zuen, gai desberdinekin etortzen zitzaizkion eta. Kontabilitatea ere eman zuen.</p>

41. Zarauzko eskolen egoera; inspektorea etorri zeneko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-017/048
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:14:50. **Bukatu:** 01:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Zarautzen 11-12 urte inguruko ikasleak zituen eta Aginagan 6tik 14ra bitartekoak. Zarautzen ikasle asko zituzten eta ahal bezala garajetan ematen zituzten klaseak. Crespo inspektorea etorri zeneko kontuak. Aginagako eskolako egoera: eskola zaharra, haur asko, adin desberdinetakoak..</p>

42. Ezkondu ostean, lanpostu finkoa utzi zuen

- **Erref:** ZAR-017/049
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:18:27. **Bukatu:** 01:20:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gero Eibarko Aginaga auzora joan zen. Asko gustatzen zitzaion lekua, baina ezkondu eta eszedentiza eskatu zuen. Eta ez zen gehiago itzuli, "eskalafoian" gelditu zen.

43. Eskolako obligazioak

- **Erref:** ZAR-017/050
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:20:15. **Bukatu:** 01:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Eskolako kontuak. Sarrera eta irteeran errezatzea eta Cara al Sol abestea ziren obligazioak.</p>

Transkripzioa

-Eskolan erabiltzen al zenuten ba ez dakit esaldi bereziyak o holako?

-Egin behar gendun, adibidez, sartzen gñanian errezatu eta irtetzen giñanian re bai eta "Cara al sol" abestu behar zan, besua altxa ta horrela umiekin irakurri oi, abestu, "Cara al sol" eta kalera. Hoiek zian zerak obligaziyuak. Eta geo...

-Hortik aurrea?

-Ez programa bat ematen zizuen eta programa hua bete behar zenun. Eta Agiñan, hemen Usurbillen egon nintzanian,ez programaik ezta ezer ez. Aber ze programa eman behar zien nei sei urteko umiantzako eta geo hamalau urtekuantzako, aber ze programa eman ber zuen. Ta ze iten nun nik? ahal nuna.

-Ordun obligaziyu sarreran eta irteeran errezatu?

-Bai

-Eta tartian “Cara al sol”?

-Bai, hori bai egin bihar zan e! Jakiten bazuen hori ez zendula iten... Nei banderarik ez zien obligatu behin´e jartzea, beste leku batzutan obligatu eiten ziyoen ikurriña jartzera, bueno bandera jartzera, nei ez zien behin´e, behin´e, nik ez nun jarri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com